

COSMOS, aeronautikaren eta aerosorgailuen sektoreetan ekoizpena % 20 areagotzeko proiektua



Aeronautikaren eta aerosorgailuen sektoreetan fabrikako ekoizpena % 20 areagotzea helburu duen COSMOS proiektuaren buru da [Ibermática](#). Proiektu horri esker, industria horrek bultzada txiki bat jasoko du ekoizpenari, kalitate-gastuei eta ekoizpen-denborari dagokienez. Batik bat muntaia eta pieza handiak mihiztatzeko prozesuak automatizatuko dituzte. Izan ere, prozesu horiek arazo ugari sortzen dituzte.

Proiektu horretan parte hartzen dihardute [Gamesak](#) eta [Teknikerrek](#) ere.

Gaur egun, mundu mailan Europa da buru aeronautika-sektorean eta aerosorgailuen sektorean, eta etorkizunean buruzagitza hori mantentzeko, prozesuek etengabe hobetzen jarraitu behar dute ekoizpen-kate osoan zehar. Hain zuzen ere, aerosorgailuen ekoizpenean, mihizadura da prozesurik garrantzitsuena; baita hobekuntza-tarte handiena duen prozesua ere.

Mihizadura-lan gehienak eskuz egiten dituzte. Baina sektore horren desabantailarik handiena da oso aldakorra dela. Prozesuek egonkortasun txikia dute, eta zenbait ekintza behin eta berriz errepikatu behar dira, lehenengoan ondo egitea oso zaila delako. Horrek guztiak gastu handia dakar. Industria-mota horretan [Lean Manufacturing](#) eredu bat ezartzea zaila bada ere, horrek ikaragarriko hobekuntzak ekartzen ditu ekoizpenari, kalitate-gastuei eta ekoizpen-denborari dagokienez.

Beraz, COSMOS (COST-driven adaptive factory base on MODular Self-contained factory units) proiektuaren helburu nagusia da fabrikaren kudeaketarako kontrol-sistema bat diseinatzea, garatzea eta ezartzea. Betiere fabrikazio malgu, modular eta ebolutibo baten ikuspuntutik. Fabrikako ekoizpena % 20 areagotu nahi dute sistema horrekin.

Ekoizpena areagotzeko faktore nagusienetako bat mihizadura-prozesuetan *Lean* printzipioak txertatzea da. Bai eta printzipio horiek eusten dituen estrategiak txertatzea ere, noski. Ikuspegi hori dela medio, berehala murriztuko ditu lan errepikatuak, etekina, itxaron-denbora eta inbentarioen maila. Halaber, proiektu horrek kostu-eredu bat definituko du, ikuspuntu ekonomikoari eta fabrikaren etorkizuneko eboluzioari erreparatzen diona.